



ARTELEKU
URR/19/OCT
URR/22/OCT

MINTEGIA
SUBJEKTUA ERAIKITZEA
KULTURA DIGITALEAN

SEMINARIO
LA CONSTRUCCIÓN DEL SUJETO
EN LA CULTURA DIGITAL

ERRETRATUA, IDENTITATEA
ETA MEDIO BERRIAK

RETRATO, IDENTIDAD
Y NUEVOS MEDIOS





KOORDINAZIOA/COORDINACIÓN

RAMÓN ESPARZA

GONBIDATUAK/INVITADOS

HELLEN VAN MEENE

JAVIER ECHEVARRÍA



URR/19-22 MINTEGIA

SUBJEKTUA ERAIKITZEA KULTURA DIGITALEAN

ERRETRATUA, IDENTITATEA ETA MEDIO BERRIAK

Erretratuaren generoa eta bere bilakaera historikoa estuki lotuta daude, logikoki, norbanakoaren gizarte ikuskerarekin eta nortasuna eraikitzearekin. Errenazimenduan nortasuna, subjektuaren ideia, koloreekin lotzen zen (gorputzeko lau jarioak eta horien koloreak: gorria, horia, zuria eta berdea) eta ondorioz, egonkortzat eta norbanakoaren izaeraren baitakotzat jotzen zen. XVIII. mendetik aurrera, subkontzientearen existentziak mintzatzen hasi ziren zientzialariak. Nortasunaren zati bat da subkontzientea, nola funtzionatzen duen ezezaguna zaiguna.

Bistan denez, psikoanalisia pentsamendu burgesarekin lotuta dago. Psikoanalisia sortzeak bide eman zien norbanakoaren egungo ikuskerari eta identitatea eraikitzeko prozesuaren konplexutasunari. Pentsamendu klasikoak izaera aldaezina ematen zion identitateari. Orain, ordea, etengabe aldatzen ari den zerbit da, norbanakoak eta bere gizarte inguruak elkarri eragiten diotelako.

Nola garatzen da prozesu hori egungo gizartean? Gizarte burgesak sortutako produktua da subjektuaren ideia eta pentsamolde marxistaren guztiz kontrakoa da. Azken horren arabera, testuinguru sozio-historiko jakin batek determinatzen du norbanakoa. Bi ikuskera horien arteko elkarreragina are indartsuagoa da gaur egun. Gure gizarteak askatasun osoa ematen dio norbanakoari, baina, aldi berean, komunikabideen presioek joera, korrante eta moden mende jartzen gaituzte. Elementu horiek guztiek «identitatea» ematen digute, hitzaren zentzu estuenean, hots, pertsona *identiko* bihurtzen gaituzte; talde, tribu eta gizarte taldeen kide bihurtzen gaituzte. Batzuetan konturatu ere egin gabe.

Medio digitek subjektua dute helburu eta erretratuaren benetako eklosio soziala eragin dute subjektuaren eklosioaren parte gisa. Facebook, Twitter, blogak eta Web 2.0 delakoaren beste tresnak *niaren teknologiak* dira; Michel Foucaultek sortutako terminoa da hori. Edozein bilakatu daiteke idazle edo kazetari eta edozeinek erakutsi dezake bere bizitza eta edozeinen eskueran jarri. Gizarte digital berriak buruz buruko komunikazioa ahalbidetzen du; subjektu pasibo baino aktibo bilakatzen gaitu. Baina, aldi berean, anonimo bihurtzen gaitu, sarea betetzen duten gu bezalako milioika subjektoren antzera.

Ramón Esparza



MINTEGIAREN HELBURUAK

Norbanakoaren ikuskeren arteko erlazioa eta horrek erretratuaren generoan duen isla aztertzea da mintegiaren lehenengo helburua. Erretratuaren historia, norbanakoaren gizarte ikuskeren historia gisa ikusi daiteke. Hasiera XIX. mendeko erretratu burgesean izan zuen, artean norbanakoaren izaera sozialak markatzen zuela. Gero, XX. mendean *bideguritze* bat gertatu zen, non ikuskera marxistak eta burgesak bat egiten duten eta askotan talka ere egiten duten. Azkenean, gaur egun, identitatearen kontzeptua amaitutzat eman da eta hortaz, generoa krisi egoeran dago.

Ikasleei erretratuaren munduan barneratzea ahalbidetuko dieten gaitasunak transmititzea da bigarren helburua. Hori da **Hellen van Meene** Herbehereetako argazkilariak emango duen tailerraren helburua. Bere karreraren zehar nerabeen munduan espezializatu da Hellen van Meene eta, besteak beste, Herbehereetan, Japonian eta Errusian garatu ditu bere argazki sailak.

Azkenik, **Javier Echevarría**, gaur egun Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Gorenari lotuta dagoen filosofoak hitzaldia bat emango du web 2.0aren *bideen nartzisismo* berria aztertzeko. Horrez gain, kultura digitalean subjektua eraikitzearen inguruan ere hausnartuko du.

MINTEGIAREN EGITURA

URR/19 MINTEGIAREN AURKEZPENA/HITZALDIA

19:00 RAMÓN ESPARZA: ESTRATEGIAS DEL RÉTRATO Y VISIONES DEL SUJETO

URR/20-22 ARGAZKILARITZA TAILERRA

HELLEN VAN MEENE

Ordutegia: 10:00-14.00 / 16:00-20:00

URR/22 HITZALDIA

19:00 JAVIER ECHEVARRÍA

MAHAI INGURUA ETA AMAIERA

Izena emateko epea: Irailak 30.

Bidali zure datu pertsonalak zure CVarekin batera → arteleku@gjpuzkoa.net helbidera.

Xehetasun gehiago, planteamendu kontzeptualak, testuak, izena ematea → www.arteleku.net



19-22/OCT SEMINARIO

LA CONSTRUCCIÓN DEL SUJETO EN LA CULTURA DIGITAL

RETRATO, IDENTIDAD Y NUEVOS MEDIOS

El género del retrato y su evolución histórica van, lógicamente, estrechamente ligados a la concepción social del individuo y a la construcción de la personalidad. Si en el Renacimiento la personalidad, la idea de sujeto, iba ligada a los colores (la influencia de los cuatro fluidos corporales y sus diferentes colores: rojo, amarillo, blanco y verde) y, en consecuencia, se concibe como algo estable e inmanente a la naturaleza de cada individuo, a partir del XVIII los científicos comienzan a hablar de la existencia de un subconsciente y por tanto una parte de la identidad cuyo funcionamiento desconocemos.

Evidentemente, es la aparición del psicoanálisis, ligado al pensamiento burgués, la que da paso a la concepción moderna del individuo y a la complejidad del proceso de construcción de la identidad, que pasa de ese carácter inmutable que le concedía el pensamiento clásico, a ser algo de constante reformulación, como resultado de la interacción entre el individuo y su entorno social.

¿Cómo se desarrolla ese proceso en la sociedad actual? La idea de sujeto es un producto de la sociedad burguesa, en clara contraposición al pensamiento marxista, que concibe al individuo como determinado por un contexto socio histórico concreto y la interacción entre ambas concepciones es más viva si cabe en nuestros días. Nuestra sociedad concede libertad total al individuo, pero al mismo tiempo, la presión de los medios de comunicación nos convierte en presas fáciles de tendencias, corrientes, modas, elementos todos que nos proporcionan una "identidad" en el sentido primero de la palabra: nos hacen *idénticos* a otros, nos convierten en miembros de grupos, tribus o colectivos sociales. A veces sin darnos cuenta.

Los medios digitales han provocado una auténtica eclosión social del retrato como parte de la eclosión del sujeto que tienen como objetivo. Facebook, Twitter, blogs y demás instrumentos de la llamada web 2.0 son auténticas *tecnologías del yo*, por utilizar el término acuñado por Michel Foucault. Cualquier individuo puede convertirse en escritor, en periodista, exhibir su vida poniéndola al alcance de cualquiera. La nueva sociedad digital posibilita la comunicación persona a persona, nos convierte en sujetos activos, y no meramente pasivos; pero al mismo tiempo nos sumerge en el anonimato de los millones de sujetos como nosotros que pueblan esa red.

Ramón Esparza



OBJETIVOS DEL SEMINARIO

Analizar la relación entre las diferentes concepciones del individuo y su reflejo en el género del retrato será la primera aproximación del seminario. La historia del retrato puede ser vista como la historia de las concepciones sociales del individuo. Desde el retrato burgués del XIX que todavía está marcado por la dimensión social del individuo a la *bifurcación* que surge en el XX, donde coinciden, y muchas veces colisionan, las concepciones marxistas y burguesa, hasta la situación actual del fin del concepto de identidad y la consiguiente crisis del género.

El segundo objetivo es transmitir capacidades que permitan a los participantes internarse en el territorio del retrato. Ese es el objetivo del taller a impartir por la fotógrafa holandesa **Hellen van Meene** que, a lo largo de su carrera, se ha especializado en el mundo de los adolescentes, desarrollando sus series en países como Holanda, Japón o Rusia.

Finalmente, **Javier Echevarría** –filósofo vinculado en la actualidad al CSIC–, analizará el *nuevo narcisismo* de los medios de la web 2.0, en una conferencia en la que reflexionará sobre la construcción del sujeto en la cultura digital.

ESTRUCTURA DEL SEMINARIO

<u>19/OCT</u>	<u>PRESENTACIÓN DEL SEMINARIO/CONFERENCIA</u>
<u>19:00</u>	<u>RAMÓN ESPARZA: ESTRATEGIAS DEL RETRATO Y VISIONES DEL SUJETO</u>
<u>20-22/OCT</u>	<u>TALLER DE FOTOGRAFÍA</u>
	<u>HELLEN VAN MEENE</u>
	Horario: 10:00-14.00 / 16:00-20:00
<u>22/OCT</u>	<u>CONFERENCIA</u>
<u>19:00</u>	<u>JAVIER ECHEVARRÍA</u>
	<u>COLOQUIO FINAL Y CLAUSURA</u>

Plazo de inscripción: hasta el 30 de septiembre.

Envía tus datos personales junto con tu CV a → arteleku@gipuzkoa.net

Más detalles, planteamiento conceptual, textos, inscripción → www.arteleku.net



INFORMAZIO OROKORRA

Arteleku - Gipuzkoako Foru Aldundia, arte garaikide zentro bat da, jardute artistiko kultural esperimentalak bultzatzen dituena. Proiektzioa izango duten eta gure ingurunean era sozial, publiko eta komunitarioan errotu diren proposamen mota oro sortu eta sustatzeko xedez, artea bultzatzeko leku bat da.

→ www.arteleku.net en zentroak programatutako ekitaldien inguruko eta Artelekurekin elkarlanean aritzen diren proiektuek sortutako dokumentazioa dago eskuragarri.

IZEN-EMATEA

Tailerretan izen-ematea Artelekuko webgunearen bitartez egingo da → www.arteleku.net


INFORMACIÓN GENERAL

Arteleku - Diputación Foral de Gipuzkoa es un centro de arte contemporáneo que impulsa prácticas artísticas culturales experimentales. Un lugar de apoyo al arte desde la perspectiva de generar e impulsar toda clase de propuestas que permitan una proyección externa, y, a su vez, se adscriban en un modo social, público y comunitario.



En → www.arteleku.net está accesible toda la información en torno a las actividades programadas por el centro, así como la documentación generada mediante la colaboración con diferentes proyectos.

INSCRIPCIÓN

Inscripción a los talleres a través de la página web de Arteleku → www.arteleku.net



Nola heldu | Cómo llegar

-  26 / Amara - Martutene → Txomin - Enea
A1 / Donostia - Hernani → Txomin - Enea
-  Renfe / Irun - Brinkola → Donostia - Loiola
EuskoTren / Topo → Donostia - Loiola
-  A8 / Salida 5 → Martutene - Loiola

Informazioa - administrazioa | Información - administración

Astelehenetik ostiralera | de lunes a viernes
Orduetgia | Horario: 8:00 - 19:00
T 00 34 943 453 662 | F 00 34 943 462 256
arteleku@gipuzkoa.net

Dokumentazio Zentroa | Centro de Documentación

Astelehenetik ostiralera | de lunes a viernes
Orduetgia | Horario: 9:00 - 19:00
T 00 34 943 444 667 | F 00 34 943 462 256
garrillaga@gipuzkoa.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kristobaldegi, 14. Loiola. 20014 Donostia - San Sebastián
T 00 34 943 453 662 | F 00 34 943 462 256 | arteleku@gipuzkoa.net | www.arteleku.net